EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

# BIKTIMAK-VICTIMAS ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Gernikako Biltzar Etxea

2008-07-14

Izaskun Bilbao Barandika

EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA

Egun on.

Gaurko eguna, hain sinbolikoa eta hain inportantea den egun hau, bereziki egokia da politikarako, publikorako erreibindikatzeko sentimenduak, gure diskurtsoak eta jarrerak humanizatzeko borondatea. Eta hau momentu emozional bat da, eta horregatik eduki zibiko sakona duena. Gernikako Batzar Etxeak bere barruan hartuko du gaur ETAren biktimen mina eta sufrimendua errekonozitzen duen erakusketa bat. Gertakari honek esanahi handia du, inportantzia handia dauka, eta ez dut uste beharrezkoa denik zergatik den azaltzea.

Pablo Picassok uko egin zion beti *Guernica* koadroko figuren sinbolismoa azaltzeari. Galdetzen ziotenean, gogoratzen zien inori ez zitzaiola bururatuko txori baten kanta interpretatzen saiatzea, ondo baino hobeto ulertzen dutelako hizkuntza orotako biztanleek. Berdin gertatzen da Picassoren 25 metro koadroko oihal gaineko oliozko alegoriarekin, zeinak mundu guztian zehar zabaldu baitu hiri honen izena eta hiriaren martirioaren historia. Koadro horretan ez dago pintzelkada bat txokokerietan edo pasadizoetan alferrik galduta. Ezaugarri horri esker, *Guernica* izuaren, gerra eta hilketaren alferrikakoaren, heriotzaren sinonimo unibertsala da. Ikono horrek ondo laburbiltzen du zer esan nahi duen pertsonak hiltzeak eta gizarteak suntsitzeak: indarkeriak biktimengan sortzen duen mina, angustia, beldurra, agonia, harridura. Beti ere eta ororen buru krimenaren frutu bakarra dena: izan ahal izatearen, bizitzaren, humanismoaren porrota. ETAko kideeak oraindik ere ikasi ez duten ikasgaia.

Toki hau, berton bizi den jendea, hiri hau sentitzen dugun emakumeak eta gizonak, gauza baten lekuko dira: odolarekin zikindutako kausa batek ere ez du aurrera egiten. Gauzen ikuskera bat inposatzeko jarri ziren bonbek eta jaurti ziren metrailadore-tiroek mina eragin zuten. Baina balio izan zuten, orobat, gizakien ankerkeriaren argazki bat inspiratzeko. *Guernica*-ren bonbillaren argipean, bake-misio asko sortu dira, eta kontzientzia ez gutxi iratzarri dira.

Apaltasunik handienarekin, gaur hemen, moztu ezin izan zuten arbolaren gerizpean, ikusgai jartzen dugun erakusketak ideia horietan beretan ekitea du helburu. Kausa batek ere ez du justifikatzen indarkeria, eta gutxiago oraindik indarkeria hori herritarrek gaitzetsi arren haiei bizkar emanda gauzatzen bada. Euskal emakume eta gizonek badakigu inposaketarekin ez dagoela etorkizunik, ez dagoela proiektu politikorik, ez dagoela elkarbizitza-posibilitaterik. *Guernica*-n zuri-beltzean odoletan dagoen absurdua, hori bera bizi da erakusketa hau osatzen duten 80tik gora argazkietako bakoitzean ere. Erakusketa honetan entzun daitezkeen lekukoetako bakoitzak absurdu hori komunikatu nahi du, sugarren artean laguntza eskatzen duen emakumearen indar berdinarekin. Erakusketako bideoek, bideoen irudiek, bideoen soinu-bandak hondamena transmititzen

dute, zalditik erori zen, bere ezpata apurtu zuen, lore bat eskuetan hartuta duen eta ezer ulertu gabe hiltzen den lur jotako gizonaren hondamendi bera. Horregatik, dena hasten eta bukatzen da "Biktima" eskulturan, zeinak adierazpen artistiko on guztiek bezala, ez baitu hitzik behar barruraino iristeko. Gure zaurgarritasun arbitrarioenaren ispilu delako. Eta niri gertatzen bazait? Eta hori zu izango bazina?

Gure erakusketa apal honek ez du Picassoren koadroaren dimentsio unibertsalik. Ez ditu ere konparatzen zirkunstantziak, garaiak edo pertsonak. Bere asmoa, ordea, da bere efikazia morala konpartitzea eta bere mezua adieraztea lengoaia estetiko, argi eta zehatz batekin, guztiok ulertzeko moduan. Ahalegin serio bat da gauza lotsagarri bat salatzeko, alegia, gaur hiltzen duten bonbak ez datozela kanpotik, gure artean bizi diren pertsonek fabrikatzen dituztela. Hauxe da gure tragedia domestikoaren berezitasuna, izen eta bi abizeneko pertsonei eragiten diena. Horregatik eskatzen diogu ETAri utz diezaiola hiltzeari eta ziurtatzen dugu ETAk ez duela inoiz hiltzen herri honen izenean. Hemen islatzen dugu, ikusteko eran, mina, gure mina, gureak diren biktimen sufrimendua. Biktima horiekin errekonozimenduaren obligazio etikoa daukagu, elkartasunaren giza konpromisoa daukagu, justiziaren eginbehar politikoa daukagu. Ez dago toki egokiagorik hori erreibindikatzeko Gernika baino.

# INAUGURACION DE LA EXPOSICION BIKTIMAK-VICTIMAS

Casa de Juntas de Gernika

14 de julio 2008-07-14

Izaskun Bilbao Barandika

PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO

Egun on, eta mila esker.

Nire esker ona agertu nahi nieke Lehendakari andreari, Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiari, gure artean dauden agintariei eta, bereziki, gaur hona hurbildu diren ETAren biktimei.

Erakusketa honen xedea da ETAren terrorismoaren biktimen oinazea aitortzea, eta biolentziaren erabilera arbuiatu eta zilegitasuna kentzea. Oso gertutik jarraitu ditut, urratsez urrats, erakusketa honen hasiera eta garapena. Bertan integratu ditugu biktima askoren eta biktima horiek ordezkatzen dituzten elkarte gehienen ekarpenak. Haiekin, eta hedabideen lankidetzarekin, sekula gertatu behar ez zuenaren kontakizuna eraiki dugu. Testigantza hori herritarrengana errazago hurbiltzearren lengoaia estetikoa eta artistikoa erabili dugu.

Gernikan ematen diogu hasiera urtebetetik gorako ibilbide honi, eta ez kasualitatez. Biolentziaren antzutasunaren salaketa hau, hainbat erakundetara eramango dugu, Europara estatura, eta autonomia erkidegora. Leku honek esanahi berezia du guztiontzat. Askorentzat, mitikoa da. Horregatik egokia da funtsezko bi mezu gogorarazteko: lehenengoa da ETAk eragin dituen min, sufrimendu eta heriotz guztiek ez dutela zerikusik haritz honek askoren ustez adierazten duen demokraziazko eta askatasunezko historiarekin. Haritz honen itzalpean gaudelarik, orobat, une egokia da aldarrikatzeko ez gorrotoak, ez odolak, ez gerrak, ez dutela inork ezagutzen duen eragin positiborik. Oso ondo dakite hori gernikarrek.

Buenos días.

Un día como hoy, simbólico, importante, es especialmente apropiado para reivindicar para la política, para lo público, los sentimientos, la voluntad de humanizar nuestros discursos y actitudes. Y este es un momento emocional y por ello mismo con un profundo contenido cívico. La Casa de Juntas de Gernika acoge hoy una exposición que reconoce el dolor y el sufrimiento de las víctimas de ETA. Este hecho significa e importa y no creo que necesite detallar porqué.

Pablo Picasso siempre se negó a explicar el simbolismo de las figuras del Gernika. Cuando le acosaban las preguntas recordaba que a nadie se le ocurriría tratar de interpretar el trinar de un pájaro, porque lo entienden los hablantes de cualquier idioma. Lo mismo ocurre con la alegoría que encierran los 25 metros cuadrados de óleo sobre tela que han difundido en todo el mundo el nombre de esta villa y la historia de su martirio. No hay una sola pincelada que se desperdicie en localismos, en anécdotas. Gracias a esa cualidad el Gernika es el sinónimo universal del espanto, de la inutilidad de la guerra y del asesinato, de la muerte. Un icono que resume lo que significa matar personas y destruir sociedades: Dolor, angustia, miedo, agonía, la perplejidad que la violencia produce en las víctimas. Lo que siempre, definitivamente, es el único fruto del crimen: la derrota del poder ser, de la vida, del humanismo. La lección que los miembros de ETA no terminan de aprender.

Este lugar, las gentes que lo habitan, las mujeres y hombres que lo sentimos somos testigos de que ninguna causa prospera con el abono de la sangre. Las bombas, las ráfagas de ametralladora que pretendieron imponer una visión de las cosas produjeron dolor. Pero sirvieron también para inspirar un retrato de la crueldad humana. A la luz de la bombilla del Gernika han nacido muchas misiones de paz y se han despertado no pocas conciencias.

Desde la máxima humildad, la exposición que se abre hoy aquí, a la sombra del árbol que no pudieron talar, aspira a insistir en las mismas ideas. Ninguna causa justifica la violencia y menos aún al margen de una ciudadanía que rechaza esos métodos. Vascas y vascos sabemos que en la imposición no hay futuro, ni proyectos políticos, ni posibilidad de convivencia. El absurdo que sangra en blanco y negro en el Gernika vive también en cada una de las más de ochenta fotografías que integran esta exposición. Cada testimonio de los que aquí pueden escucharse quiere comunicar con la misma fuerza que la mujer que pide socorro entre las llamas. Los vídeos, sus imágenes, su banda sonora, transmiten el mismo descalabro del hombre destrozado que cayó del caballo, que rompió su espada, que sujeta una flor y muere sin entender nada. Por eso todo comienza y termina en “Victima”, la escultura que como todas las buenas expresiones artísticas no necesita palabras para llegar hasta dentro. Porque es el espejo de nuestra vulnerabilidad más arbitraria. ¿Y si me pasa a mí? ¿Y si fueras tú?

Nuestra modesta exposición no tiene la dimensión universal del cuadro de Picasso. Tampoco compara circunstancias, épocas o personas. Pero si pretende compartir su eficacia moral y emitir su mensaje con un lenguaje estético, claro y lo

suficientemente preciso para que todos podamos entenderlo. Es un intento serio de denunciar la vergüenza de que las bombas que matan hoy no vienen de fuera, las fabrican personas que viven entre nosotras y nosotros. Esta es la dimensión de nuestra tragedia doméstica, que afecta a personas con nombre y dos apellidos. Por eso pedimos a ETA que deje de matar y certificamos que nunca lo hace en nombre de este pueblo. Colocamos hoy aquí la expresión del dolor, nuestro dolor, el sufrimiento de unas víctimas propias, nuestras, con las que tenemos la obligación ética del reconocimiento, el compromiso humano de la solidaridad y el deber político de la justicia. Ningún lugar más adecuado para reivindicarlo que Gernika.

Muchas gracias.
Traducción del texto en euskera

Buenos días y muchas gracias. Mi agradecimiento a la presidenta y Mesa de las Juntas Generales de Bizkaia, al diputado general, a las autoridades que nos acompañan, y en especial a las víctimas de ETA que se han acercado hasta aquí.

Esta exposición trata de reconocer el dolor de las víctimas del terrorismo de ETA y rechazar y deslegitimar la utilización de la violencia. He vivido intensamente, paso a paso, su nacimiento y desarrollo. Hemos integrado aquí las aportaciones de muchas víctimas y de la mayor parte de las asociaciones que las representan. Con ellas, con la colaboración de los medios de comunicación, hemos construido una narración de lo que nunca debió suceder. Tratamos de contarlo con un lenguaje estético y artístico que nos ayude a acercar este testimonio a la ciudadanía,

No por casualidad comenzamos en Gernika un recorrido de más de un año. Vamos a llevar esta denuncia sobre la esterilidad de la violencia a las instituciones europeas, estatales y autonómicas. Este es un lugar notable para todos. Es un sitio mítico para muchos. Por eso es apropiado para recordar dos mensajes fundamentales. El primero es que todos los episodios de dolor, sufrimiento y muerte que ha ocasionado ETA nada tienen que ver con la historia de democracia y libertad que simboliza para muchos este roble. Amparados en su sombra es especialmente oportuno proclamar también que el odio, la sangre, la guerra, no tienen efecto positivo conocido. Algo que saben muy bien todos los gerniqueses.